



Laburpena

Giza Garapenari buruzko Txostena **2010**

20. urteurreneko argitalpena



Nazioen benetako aberastasuna:

Giza garapenerako bideak



Nazio Batuen
Garapen
Programarentzat
(UNDP)
argitaratua

Hitzaurrea

1990ean, Nazio Batuetako Garapen Programak (NBGP) *Giza Garapenari buruzko lehenengo txostena* argitaratu zuen, eta, bertan, Giza Garapenaren Indizea (GGI) aurkeztu zen. GGIn oinarritzko premisa sinplea eta erakargarria zen, nahiz eta bere garaian erradikaltzat hartu: herrialde baten garapena ez zen neurtu behar nazioko sarrerak soilik kontuan hartuta —aspalditik gehien erabiltzen zen neurketa-mota—; horrez gain, herrialdeko bizi-itxaropena eta alfabetatzea ere aintzat hartu behar ziren. Bi faktore horien datu konparagarriak zeuden eskura herrialde gehienetan.

Egileek aitortu zutenez, GGI berriak zenbait urritasun zituen; besteak beste, nazioko batez bestekoekiko mendetasuna —banaketa-lerrabideak ezkutatzen zituzten— eta “giza askatasunaren neurri kuantitatibo” baten gabezia. Nolanahi ere, *Txostenaren* tesi nagusia inolako arazorik gabe azaltzea lortu zuen, lehenengo esaldian bertan labur-labur aipatua: “Nazio bateko benetako aberastasuna han bizi den jendearengan dago”.

Hogei urte geroago, kontzeptuen bikaintasunak eta giza garapenaren jatorrizko paradigmaren garrantziak eztaba daezin izaten jarraitzen dute. Herrialde bateko arrakasta edo gizabanako baten ongizatea ezin dira neurtu horien diru-sarrerak soilik kontuan hartuta; ideia horri dagokionez, adostasuna ia erabatekoa da mundu osoan. Noski, sarrerak funtsezkoak dira, baliabiderik gabe zaila baita aurrerapen oro lortzea; ordea, honako hauek ere aintzat hartu behar dira: jendeak bizitza osasuntsua eta luzea izan dezakeen, heziketa jasotzeko aukerarik duen edo, bere etorkizuna eratzean, dituen ezagutzak eta talentuak aplikatzeko askatasuna duen.

Hori izan zen hasierako ikuspegia, eta *Giza Garapenari buruzko lehenengo txostenaren* egileek —Pakistango Manbub ul-Haq, haren lagun eta kolaboratzaile zorrotz Amartya Sen, Indiakoa, eta garapeneko beste ideologo garrantzitsu batzuk— egindako ekarpen nagusia izaten jarraitzen du. Ikuspegi horri esker, 20 urtean *txosten* hau idazteaz gain, Giza Garapenari buruzko nazioko txosten ugari idatzi dira, 600 baino gehiago, tokiko ikerkuntzetan oinarrituak eta dagokien herrialdeak argitaratuak. Halaber, eskualde-ikuspegiko txosten suspergarri ugari egin dira, NBGPren eskualdeko bulegoek bultzatuta.

Baina, agian, garrantzitsuena da giza garapenaren ikuspegi horrek eragin nabarmenak izan dituela politika publikoak sortzeko ardura duten agintarien eta garapeneko adituen belaunaldi batean, baita NBGPko eta Nazio Batuen gainerako erakundeetako kide ugariarengan ere.

Hogeigarren urteurreneko mugari honek aukera bikaina eman du giza garapenaren alorrean eskuratzeke dauden lorpenak eta erronkak modu sistematikoan ebaluatzeko, bai nazioan bertan, bai mundu osoan —zeregin horri ez zaio ekin lehenengo *txostena* egin zenetik—; halaber, aukera ona da politikan nahiz etorkizuneko ikerkuntzetan lorpen horiek dituzten ondorioak ebaluatzeko

Probak argiak eta eztaba daezinak dira funtsezko alderdi bati dagokionez: herrialdeek asko egin dezakete bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko, baita kontrako egoeretan ere. Nazio askok aurrerapen handiak lortu dituzte osasun- eta hezkuntza-alorrean, nahiz eta sarrera-mailei dagokienez igoera handiak ez izan. Beste batzuek, berriz, ez dute neurri berean aurreratu bizi-itxaropenari, eskolatzeari edota bizi-maila orokorraren estandarrari dagokienez, hamarkadetan

jarduera ekonomiko ona izan arren. Aurrerapenak sekula ez dira automatikoak izaten; beharrezkoak dira borondate politikoak, lidergoa eta nazioarteko komunitatearen etengabeko konpromisoa.

Azken 40 urteetako datuek halaber erakusten dute bide ugari daudela giza garapenean lorpenak izateko; hau da, ez dago errezeta bakar bat edota eredu berdin bat arrakasta izateko.

Txosten honek herrialde askok alor gehienetan lortutako aurrerapen handiak erakusten ditu; zenbaitetan, gainera, nazio pobreenek lortu dituzte hobekuntza handienak. Agian ez da ustekabe bat izango estatistikarientzat; baina, orain dela lau hamarkada, inork gutxik pentsatuko zuen diru-sarrera gutxiko herrialdeek egun osasun-alorrean, hezkuntzan eta, neurri txikiagoan, hazkunde ekonomikoan ikus daitezkeen aurrerapen handiak izango zituztenik.

Nolanahi ere, mugimendu guztiak ez dira positiboak izan. Tamalez, hainbat naziok atzera egin du GGiren lorpenen kopuru absolutuetan, 1990. urtean lehenengo aldiz argitaratu zenetik. Herrialde horiek irakaspena eman digute gatazka batek, Hiesaren epidemiak edota kudeaketa politiko nahiz ekonomiko txarrak izan ditzaketen ondorio suntsitzaileei buruz; izan ere, herrialde horietako gehienek arazo horietako bat baino gehiago bizi izan dute, guztiak ez bada.

Bereziki poztu nau neurketa-sistema berritzeko tradizioari dagokionez *Giza Garapenari buruzko Txostenak* izan duen jarraipenak. Urte honetan, beste hiru adierazle gehitu dira, desberdintasun multidimentsionala, genero-desberdintasunak eta gehiegizko gabetzeak hautematen dituztenak. Desberdintasunak doitutako Giza Garapenaren Indizea, Genero Desberdintasunaren Indizea eta Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea —dagokien gaian izaten diren berrikuntzetan nahiz teoriarik eta estatistiketan izaten diren aurrerapenetan oinarrituta— herrialde gehienetan aplikatzen dira, eta garrantzi handiko ikuspegi berriak ekartzen dituzte.

Neurtzeko tresna berri horiek giza garapenaren hasierako ikuspegiaren etengabeko baliozkotasuna indartzen jarraitzen dute. Etorkizunean egingo diren txostenek gai konplexuagoei egin beharko diete aurre, besteak beste: gero eta zorrotzagoa den iraunkortasunari, desberdintasunari eta ahalduzkoaren nozio zabalenei. Egun, oraindik indarrean jarraitzen dute 1990eko lehenengo *txosten* hartan identifikatu ziren erronka analitiko eta estatistiko askok eta askok.

NBGP harro egon daiteke, bi hamarkadetan, intelektualki berritzailea eta independentea den txosten hau bultzatu izanaz; dena den, *Txosten* horiek ez dira izan, inoiz, NBGPk bakarrik egindako produktua. Argitalpena, neurri batean, Nazio Batuen erakundeek, nazioko gobernuak eta mundu osoko ehunka ikerlarik dituzten ezagutzen eta ikuspegiaren mende dago, eta horien lankidetzaren beti eskertu izan dugu. Urteurrenako argitalpen honek hain modu sinesgarrian erakusten duenez, gure jarduna *Giza Garapenari buruzko Txosteneko* balioen eta lorpenen arabera bideratzen jarrai dezakegu hurrengo 20 urteetan edo gehiagoan, eta hala egin behar dugu.



Helen Clark
Administraria
Nazio Batuetako Garapen Programa

Txosten honetan politika publikoei dagokienez egin diren azterketek eta aholkuek ez dute zertan islatu Nazio Batuen Garapen Programaren ikuspuntua, ezta Zuzendaritza Batzordearena edota estatu-kideena ere. *Txostena* NBGPren ardurapean dagoen argitalpen independentea da. Goi-mailako aditu eta aholkulariz osatutako talde baten eta Giza Garapenari buruzko Txosteneko taldearen lankidetzaren fruitu da. Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoko Jeni Klugman izan da honen guztiaren buru.

Amartya Sen-en sarrera

1990. urtean, lehenengo *Giza Garapenari buruzko Txostenaren* argitalpenak jendea sentsibilizatu zuen garapenaren benetako ondorioei dagokienez. Mahbub ul Haq-en lidergo ameslarian oinarrituz, lanak eragin handia izan zuen agintariek, funtzionario publikoek, komunikabideek, ekonomialariek eta bestelako gizarte-zientzialariek gizarte-aurrerapena ikusteko zuten moduan. Arreta aurrerapen ekonomikoaren adierazle tradizional gutxi batzuetan jarri ordeztu (esaterako, biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina), “giza garapenaren” kontzeptuak informazio-kopuru handi bat sistematikoki aztertzea proposatu zuen, gizakiak gizarte bakoitzean nola bizimoduari eta horiek dituzten oinarritzko askatasunei buruzkoa, hain zuzen.

Mahbub ul Haq giza garapenaren ikuspegiaren buru jarri zenerako, aurkako zenbait iritzi entzun ziren; erabilgarri zeuden neurketa ekonomiko estandarrak baino eredu zabalagoa eskatzen zuten, eta, horrez gain, proposamen alternatibo bat aurkeztu zuten. Abilezia handiz, Mahbub-ek proposamen horiek guztiak ikuspegi alternatibo handi batean biltzeko aukeraz ohartarazi zuen, praktikoa eta, aldi berean, inklusiboa izango zen alternatiba batean. Hala, *Giza Garapenari buruzko Txostenetan*, giza esperientziaren hainbat alderdirekin lotutako informazio- eta azterketa-kopuru handia sartu zen.

Nolanahi ere, zenbaki huts bat (esaterako, BPG) taula ugariz (eta horrekin lotutako azterketen multzo handiaz) ordezkatzeko arazoa informazio-kopuru handiagoa erabiltzeko dauden zailtasunetan oinarritzen da. Hori dela-eta, BPGren alternatiba esplizituztat, indize erraz bat sortu zen —Giza Garapenaren Indizea (GGI)—, bizitza luzean, oinarritzko hezkuntzan eta beharrezko den gutxieneko sarreran oinarritua. Noski, GGIk —nahiko entzute lortu zuen eztabaida publikoan— ez du “fintasun” handirik, eta horrek, neurri batean, BPGren antzeko bihurtzen du. Diagnosi honekin ez dut gutxietsi nahi, ez noski. GGI diseinatu Mahbub-ekin lan egiteko zortea izan nuen, eta, beraz, ikuspegi horretatik uste dut xedetzat ezarritako guztia lortu zuela adierazle horrek, nahiz eta garatu gabea izan; hau da, BPGren antzeko adierazle sinplearen funtzioa betetzea, baina diru-sarrera edo kontsumo-ondasun ez ziren guztia baztertu gabe. Hala ere, giza garapenaren ikuspegiaren zabaltasun handia ez da nahastu behar GGIn maila zorrotzarekin, zenbaitetan gertatzen den bezala.

Munduak aurrera jarraitu du 1990etik. Asko irabazi da (alfabetizazioari dagokionez, esaterako), baina giza garapenaren ikuspegia bultzatzen duen konpromisoak oraindik egiteke dagoen horretan oinarritu behar du, egungo munduan gehienezko arreta behar duten gai horietan, besteak beste: pobrezia, gabetzeak, desberdintasunak eta segurtasun eza. *Giza Garapenari buruzko Txostenak* etenik gabe argitaratzen ari dira, eta, horren ondorioz, beste taula batzuk sortuz doaz; horrez gain, indize osagarriak diseinatu dira, hura osatzeko eta gure ebaluazioa aberasteko.

Hori gertatzen den aldi berean, aurre egin beharreko erronkak larriagotzen ari dira; esaterako, ingurumena kontserbatzearekin lotutakoak nahiz gure ongizatearen eta oinarritzko askatasunen iraunkortasunarekin lotutakoak. Giza garapenaren ikuspegia gizakiaren bizitzak planetan izango dituen etorkizuneko itxaropenak kontuan hartzeko bezain malgua da, gure ongizateari

eragiten dioten (edo ez) aintzat hartu gabe baloratzen ditugun munduko ezaugarrien panorama barne; esaterako, gure ongizatearekin lotutako arrazoiak direla-eta desagertzeko arriskuan dauden fauna-espezie arriskutsuen biziraupenarekiko konpromisoa har dezakegu. Akats ikaragarria litzateke gero eta alderdi gehiago zenbaki bakar batean kontzentratzea (GGIn, esaterako); baina, giza garapenaren ikuspegiak badu behar besteko konplexutasuna etorkizuneko itxaropenekin lotutako kezka eta gogoeta berriak barne hartzeko (besteak beste, GGIk etorkizunean izango dituen mailen aurreikuspenak), neurri konposatu bakar batean informazio gehiago sartzen ahalegintzeko premiarik gabe.

Lehenengo *Giza Garapenari buruzko Txostena* argitaratu zenetik hogeitaz hamar urtera, eta egin diren lorpenak ikusita, bada zer ospatu; asko, hobeto esanda. Baina, aldi berean, tentu handiz jarraitu behar dugu, garai bateko ezbeharrak ebaluatzeko modu hobeak aurkitzeko, eta gizakien ongizatea nahiz askatasuna arriskuan jartzen dituzten mehatxu berriak hautemateko nahiz horiei erantzun ahal izateko. Dударik gabe, etengabeko konpromiso hori Mahbub ul Haq-en irekitasunaren parte da. Denborak ez du lortu konpromiso horrekin jarraitzeko premia gutxitzea.

Giza Garapenari buruzko Txostena 2010

Aurkibidea

Hitzaurrea
Amartya Sen-en sarrera
Eskerrak
Siglak

IKUSPEGI OROKORRA

1. KAPITULUA

Giza garapenaren berrespena

Jatorrizko adierazpena
Giza Garapenari buruzko Txostena—aurreratuak beren garairako
Giza garapenak beti bezain dinamiko izaten jarraitzen du

2. KAPITULUA

Jendearen aurrerapena

Giza garapenaren azken joerak, Giza Garapenaren Indizearen
ikuspegitik aztertuta
Bizitza luzeagoa, osasun hobea
Ezagutza handiagoa, aukera gehiago
Bizi-maila handitu da

3. KAPITULUA

Bide ugari aurrera egiteko

Hazkunde ekonomikoa eta giza garapena: puzzle bat
Aurrerapen globala: ideien rola eta berrikuntza
Erakundearen rola, politikak eta zuzentasuna
Sakondu: merkatuak, estatua eta kontratu soziala

4. KAPITULUA

Gauza onak ez datoz beti batera

Giza garapenaren dimentsio zabalenak
Ahaltza
Desberdintasuna
Ahaltza eta iraunkortasuna

5. KAPITULUA

Berrikuntzak desberdintasunaren eta pobrezia- neurketan

Hiru neurri multidimentsional berri
Desberdintasun multidimentsionalaren neurketa—Desberdintasunak
doituta GGI
Genero-desberdintasunaren neurketa—Genero Desberdintasunaren
Indizea
Pobrezia- neurketa—Pobrezia Multidimentsionalaren neurketa

6. KAPITULUA

Programa 2010etik aurrera

Aurrerapena eta klima-aldaketaren mehatxua
Politika publikoen programa bat
Ikerkuntza-programa bat

Oharrak
Bibliografia

ESTATISTIKA-ERANSKINAK

Irakurlearen gida
Herrialdeen kodea eta sailkapena, 2010
Estatistika-etaulak
Ohar teknikoak
Termino estatistikoen definizioa
Herrialde-multzoak

Ikuspegi orokorra

Nazioen benetako aberastasuna: giza garapenerako bideak

“Nazio baten benetako aberastasuna, han bizi den jendearengan dago”. Hitz horiekin, 1990eko *Giza Garapenari buruzko Txostena* garapenari aurre egiteko beste ikuspegi baten alde egiten hasi zen, tinko. Pertsonak bizitza luze, osasuntsu eta sortzaile batez gozatu ahal izateko ingurune egokia sortzea zen hasierako xedea, eta, egun, agerikoa izan arren, ez da beti hala izan. Azken 20 urteetan, argitalpen honen helburu nagusia izan da garapena, funtsean, pertsonena dela azpimarratzea.

Urte honetako *Txostenak* omenaldia egin nahi dio giza garapenaren ikuspegiak egin duen ekarpen handiari; izan ere, inoiz baino garrantzitsuagoa izan da bizi garen mundu zorabiagarria ulertzeko eta jendearen ongizatea areagotuko duten bide berriak aurkitzeko. Hain zuzen, giza garapena ez da agindu finko eta estatikoen multzo bat; hau da, etengabe aldatzen ari den kontzeptu bat da, eta horren tresna analitikoak munduan gertatzen diren aldaketan arabera egokitzen dira. Beraz, *Txostenak* halaber azaltzen du ikuspegi hau nola egokitzen den milurteko berriaren erronketara.

Azken bi hamarkadetan, giza garapenak aurrerapen nabarmena izan du hainbat alderditan. Pertsona gehienek bizitza luzeagoa eta osasuntsuagoa dute, eta, horrez gain, urte gehiago dituzte hezkuntza jasotzeko, bai eta ondasunen eta zerbitzuen aukera zabala ere. Egoera ekonomikoa aurkakoa den herrialdeetan ere, osasun- eta hezkuntza-alorra dezente hobetu dira, oro har. Aurrerapenak, ordea, ez dira osasun-alorrean, hezkuntzan eta diru-sarreretan soilik hauteman, baita jendeak liderrak hautatzeko, erabaki publikoetan eragiteko edota ezagutzak partekatzeke duen ahalmenean ere.

Nolanahi ere, historia horren alde guztiak ez dira positiboak. Azken urteetan, desberdintasunak ugartu egin dira, bai herrialdeen artean, bai herrialde barneko jendearen artean, eta, horrez gain, egiaztatu ahal izan da egungo produkzio- eta kontsumo-ereduak ez direla iraunkorrak denborari dagokionez. Zenbait eskualdetan (Afrika hegoaldea eta Sobietar Batasun ohia osatzen zuten herrialdeak), atzerapen-aldiak izan dira, osasun-alorrean, batez ere. Ahulezia berriek beste politika publiko batzuk ezartzea eskatzen dute, arriskuen eta desberdintasunen aurka borrokatzeko, eta merkatuko indar dinamikoak guztien onurarako izatea lortzeko.

Horretarako, tresna berriak behar dira. *Txosten* honetan, beste hiru adierazle gehitu zaizkio Giza

Garapenaren Indizea (GGI) neurtzeko familiari: Desberdintasunak doitutako Giza Garapenaren Indizea, Genero Desberdintasunaren Indizea eta Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea (ikus *Txostenean* erabilitako oinarritzko terminoen definizioak 1. koadroan). Hala, azken aurrerapenak gehitu zaizkie garapena neurtzeko alderdi teorikoei eta teknikoei, eta agerian jarri da desberdintasuna eta pobrezia faktore garrantzitsuak direla giza garapenaren perspektiban. Datu esperimentalen multzo hau aurkeztu dugu eztabaida publiko arrazoitu bat sustatzeko, datu erantsien ikuspegi tradizionalaz harago.

Egungo erronkek, halaber, beste ikuspegi bat eskatzen dute politika publikoak proposatzeko. Giza garapenean aurrera egiteko, ez dago formula magikorik, baina ondorio garbi batzuetara iritsi gaitzke politikak egiteari dagokionez. Lehenik eta behin, ezin da pentsatu iraganean lortutako aurrerapenak etorkizunean errepikatuko direnik; egungo eta etorkizuneko aukerak askoz ere hobeak dira hainbat zentzutan. Bigarren, esperientzien eta testuinguruen aniztasuna dela-eta, ezin dira formula globalak ezarri; aitzitik, printzipio eta jarraibide orokorrak ditu xede. Azkenik, erronka berriak sortu dira, klima-aldaketa, bereziki.

Beraz, gainditu beharreko erronka handiak ditugu aurretik. Batzuk politika publikoei dagozkie; hau da, garapen-politikak tokiko testuinguruetan eta printzipio orokor sendoetan oinarritu behar dira. Horrez gain, testuinguru horietako zenbaitetan, arazo askok estatuen gaitasuna gainditzen dute; beraz, horiek konpontzeko, ezinbestekoa da lehenik erakunde demokratikoak eta arduratsuak izatea. Erronkak alde teorikoan ere sortzen dira; hain zuzen, beharrezkoa da hazkunde ekonomikoaren eta osasun- nahiz hezkuntza-alorreko aurrerapenaren artean itxuraz dagoen korrelazio falta sakon aztertzea. Halaber, xehetasunez aztertu behar da garapen-

Txosten honetan erabili diren oinarritzko terminoak

GGI oso handia, handia, ertaina edo apala duten herrialdeen taldeak.

Nazioen sailkapenak, Giza Garapenaren Indizearen (GGI) kuartiletan oinarrituta. Giza garapen oso handiko taldean sartuko dira, baldin eta GGI kuartil altuenean sartzen bada; Giza Garapen handiko taldean GGI 51 eta 75 pertzentilen artean badago; talde ertainean, indizea 26-50 bada; eta talde apalean, indizea azken kuartilean badago. Aurreko *Txostenetan* atalase absolutuak erabiltzen zituzten, atalase erlatiboen ordez.

Garatuta/garapen-bidean. Giza garapen oso handia duten nazioak garatuak izendatzen dira, eta talde horretan sartzen ez direnak garapen-bidean dauden naziotzat hartzen dira. Terminu horiek komenentziaz soilik erabiltzen dira, GGIn maila altuenak lortu dituzten herrialdeak bereizteko.

Giza Garapenaren Indizea (GGI). Indize konposatua da, eta lorpenak giza garapenaren oinarritzko hiru dimentsiotan neurtzen ditu: bizitza luzea eta osasuntsua; hezkuntza sartzeko aukera eta ezagutza; eta bizi-maila duina. Konparazioa errazteko, hiru dimentsio horien batez besteko balioa 0 eta 1 arteko eskalan zehazten da; hau da, zenbat eta balio handiagoa, lortutako emaitzak hobeak izaten dira. Adierazle horiek batez besteko geometrikoaren bidez eranstzen dira.

Desberdintasunak doitutako GGI (GGI-D). Gizarte bateko pertsonen giza garapenaren batez besteko neurria da, horien arteko desberdintasuna aztertu eta gero. Berdintasun perfektuko baldintzetan, GGI eta GGI-D berdin-

berdinak dira, eta, bien arteko aldea handitu ahala, desberdintasuna ere handiagoa izango da.

Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI). Hainbat alorretan (ugalketa-osasuna, ahalduntzea eta lan-esparruko parte-hartzea) gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunen ondorioz izaten ez diren lorpenak neurtzen ditu. Balio txikiena 0 da (berdintasun perfektua) eta handiena 1 (erabateko desberdintasuna).

Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea (PMI). Osasun-alorrean, hezkuntzan eta bizi-mailan dauden gabetze latzak neurtzen ditu; zehazki, baztertuen kopurua gabeziaren intentsitatearekin konbinatzen du.

GGI hibridoa. GGI *Txosten* osoan deskribatutako modu funtzional berria eta aipatutako hiru dimentsioak erabiliz kalkulatzen da; dimentsio horiek, hain zuzen, bizi-itxaropenaren, alfabetizazioaren, matrikulazio gordinaren eta pertsona bakoitzaren BPGren arabera neurtzen dira. Datuak eskuratzeko aukera gehiago izateak adierazten du metodo hau egokiagoa dela epe luzerako joerak aztertzeke.

GGIri dagokien gehien edo gutxien aurreratu duten herrialdeak. GGIn aurrerapen handienak edo txikiak izan dituzten herrialdeak adierazten ditu, doiketa-lerroarekiko desbideratze-irizpidearen arabera neurtuta; lerro horrek, herrialde bateko adierazleak izaten diren aldagetak kalkulatzen ditu, abiapuntu bera zuten herrialdeen batez besteko aldagetakaren arabera.

Oharra: indize berriei buruzko xehetasun gehiago jakiteko, ikus *Txosten* osoa eta *Ohar teknikoak* 1-4..

helburuen multidimentsionalitatea, bai eta horiek ulertzeko moduan nola eragiten duten ere.

Giza garapenaren 20. urteurrena ospatzen dugu

Orain dela bi hamarkada, mundua zorpetze-, egokitze- eta soiltasun-aldetik irteten ari zen, eta eraldaketa politikoak bata bestearen atzetik gertatzen ari ziren planetako hainbat lekutan. Adierazgarritasun eta gizatasun handiz, lehen *Txostenean* eskatu zen ekonomia eta garapena beste ikuspegi batetik garatzeko: jendearengan oinarritutako ikuspegi batetik. Ikuspegi berri horrek, zehazki, Mahbub ul Haq-en (lehenengo *Txostenen* egile nagusia) begirada grinatsuan eta Amartya Sen-en lan berritzailean du jatorria.

Hogeigarren argitalpen honetan, berretsi nahi dugu giza garapenaren ikuspegiak indarrean jarraitzen duela. Froga dezakegu ikuspegi honek aurre hartu diela gertakariei, horren kontzeptuek, neurketek eta proposamenek argia ekarri baitute aurrerapenereduetara, eta, horrez gain, pertsonengan oinarritutako garapenerako bidea ezarri baitute.

1990eko *Txostenak* “pertsonen aukera gehiago ematen dizkien” prozesutzat definitu zuen giza garapena, bai eta osasuna, hezkuntza eta bizi-baldintza duinak izateko gizabanakoak duen askatasunean arreta jartzen duen prozesutzat ere. Baina, aldi berean, adierazten du gizakiaren garapena eta ongizatea gehiago direla dimentsio horien batura baino, eta gaitasunen aukera zabalago bat sortzen dutela, esaterako: askatasun politikoa, giza eskubideak eta, Adam Smithen esan bezala, “besteekin elkarrengatik jarduteko gaitasuna, jendaurrean agertzeaz lotsatu gabe”. Gobernuak, gizarte zibilak, ikerlariek eta komunikabideek gogo beroz hartu zuten lehenengo *Txostena*; beraz, agerian gelditu zen ikuspegi berri honek garapen-gizartearen eta munduan zuen garrantzia.

Berrespena

Lehenengo *Txostenak* kontu handiz aurkeztu zuen giza garapenaren nabardurazko ikuspegi bat; hala ere, denborak aurrera egin ahala, “pertsonen aukera hobeak ematea” hasierako definizio laburraren

erabilera orokortuz joan zen. Definizioa funtsezkoa da, baina ez da nahikoa. Giza garapena denboran izandako lorpenei eusten saiatzen da, jendea pobrezia daramaten prozesuen kontra egiten eta zapalkuntza nahiz egiturazko bidegabekeriak geldiarazten. Horretarako, funtsezkoak dira berdintasunaren, iraunkortasunaren eta giza eskubideekiko errespetuaren printzipio pluralistak.

Garapen-ikuspegiaren beste ezaugarri bat horren jatorri dinamikoa da. Beraz, garapenaren gauzapean praktikoarekin eta giza garapenari nahiz gaitasunei buruzko literatura akademikoarekin koherentzia duen birformulazioa proposatzen dugu:

Bizitza luze, osasuntsu eta sortzaile bat bizitzeko pertsonak duen askatasunaren adierazpena da giza garapena, bai eta pertsonak eurek baliozkotzat hartzen dituzten helburuak lortzen saiatzeko edota bizi diren planetako garapen iraunkor eta zuzenean parte-hartze aktiboa izateko askatasunaren adierazpena ere. Pertsonak berak dira giza garapenaren onuradunak eta bultzatzaileak, gizabanako moduan nahiz talde moduan.

Berrespen horrek giza garapenaren oinarritzko funtsak nabarmentzen ditu (iraunkortasuna, zuzentasuna eta ahalduntzea), bai eta atxikitako malkotasuna ere. Lorpenak ahulak izan daitezke eta berriro atzera egin daiteke; beraz, jakinik etorkizuneko belaunaldiak bidezko jokabidea merezi dutela, giza garapenak denboran iraun dezan ahalgintza behar da, hau da, iraunkorra izan dadin. Ikuspegi horrek, halaber, egitura dauden desberdintasunei heldu behar die; hau da, bidezkoa izan behar du. Horrez gain, jendea gaitu behar du, erabakitze eta parte hartze duten ahalmena bali dezaten, forma eman dezaten eta bere baitan, komunitatean nahiz nazio-mailan dagozkien prozesuen onurak izan ditzaten; azken batean, giza garapenak ahalmena lortzea eragin behar du.

Azkenik, ikuspegi horren arabera, gogoeta eta debata bultzatzen jarraitu nahi da, eta beti zabalik uzten du eztabaidarako aukera. Pertsonak ematen diote forma prozesu horri, banaka nahiz taldean. Giza garapenaren paradigma herrialde guztietan aplikatu daiteke (aberatsak zein pobreak), bai eta gizaki guztiengan ere. Azken batean, hurrengo mendearen eredu izateko bezain malgua, sendoa eta aktiboa da.

Ongizatearen bilakaera ez da berdina izan guztientzat

Txosten honen ekarpen nagusietako bat azken 40 urteetan giza garapenaren osagai nagusietan izan diren joeren ebaluazio sistematikoa da. Atzera begirako azterketa hau —hogeigarren urteurreneko helburuetako bat— gaur arte egin den osoena da, eta hainbat gai garrantzitsu argitzen lagundu du.

Laburbilduz, esan daiteke egun mundua leku askoz ere hobea dela 1990ean edo 1970ean baino. Ordutik, planetako biztanleriak aurrerapen handiak egin ditu beren bizitzako gai garrantzitsuenetan. Pertsonak, oro har, inoiz baino osasuntsuagoak, heziagoak eta aberatsagoak dira egun, eta, horrez gain, ahalmen handiagoa dute beren liderrak auzeratzeko eta horien jardunari buruzko kontuak eskatzeko. Horren adibide garbia da garapena neurtzeko gure indize orokorrean, Giza Garapenaren Indizean (GGI), izan den gorakada; indize horrek, zehazki, bizi-itxaropenari, eskola-matrikulazioari eta sarrerei buruzko datuak laburbiltzen ditu adierazle konposatu bakar batean (1. irudia). 1990etik, munduko batez besteko GGI %18 hazi da (eta %41 1970etik). Horrek bizi-itxaropenari, eskola-matrikulazioari, alfabetizazioari eta sarrerei dagokienez lortu den aurrerapena islatzen du. Nolanahi ere, aldagarritasuna eta aldakortasuna oso bizkorak dira zenbait kasutan; horiek, hain zuzen, aurrerago azalduko ditugu, xehetasunez.


Aurrerapen horrek ia herrialde guztietan eragin ditu onurak; hain zuzen, 1970-2010 aldiko laginean agertzen diren 135 herrialdeetatik —horietan munduko biztanleria osoaren %92 bizi da— 3 herrialdetan soilik da GGI apalagoa egun 1970ean baino: Kongoko Errepublikan, Zambian eta Zimbabwen (1. irudia).

Oro har, herrialde pobreak herrialde aberatsek duten GGIn mailara gerturatu ari dira. Bat egite horrek askoz ere egoera baikorragoa erakusten digu sarrearen joera soilik behatzen duen ikuspegiak baino, haren arabera desadostasuna baita nagusi. Dena den, herrialde guztiek ez dute erritmo berean aurreratu, eta aldagarritasuna nabarmena da. Giza garapenean aurrerapen motelena duten herrialdeak Hiesaren epidemiak eragin dituen Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeak eta Sobietar Batasun ohia osatzen zutenak dira; azken horietan, hain zuzen, pertsona helduen heriotza-tasa hazten ari da.

GGIri dagokienez gehien aurreratu duten herrialdeak, berriz, “mirariazko” hazkunde ekonomikoa izan dutenak dira: Txina, Indonesia eta

Txosten honen ekarpen nagusietako bat azken 40 urteetan giza garapenaren alorrean izan diren joeren ebaluazio sistematikoa da. Aurrerapen garrantzitsuak egin dira, baina ez dira beti berri onak izan.

Aurrerapen orokorraren aldagarritasuna nabaria da. Giza Garapenaren Indizearen munduko joerak. 1970–2010



Oharra: 135 herrialdeko lagin baten emaitzak, 1. koadroan deskribatutako GDI hibridoan oinarrituta. Oman, Txina, Nepal, Indonesia eta Saudi Arabiaren aurreratu da gehien, eta gutxiengatik Kongoko Errepublikan, Zambian eta Zimbabwen.

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoaren kalkulak, bere datu-basean oinarrituta.

Hego Korea. Horiez gain, ordea, badira beste batzuk ere (Nepal, Oman eta Tunez) sarrerekin lotu gabeko dimentsioetan aurrerapena nabarmena izan dutenak (1. taula). Harrigarria bada ere, lehenengo hamar postuetan dauden herrialdeak ez dira sartzen errendimendu gehien dutenen artean. 11. lekuan Etiopia dago, eta, hurrengo 25 herrien artean, Saharaz hegoaldeko Afrikako beste hiru herrialde daude (Botswana, Benin eta Burkina Faso).

Horrek erakusten du giza garapenaren ikuspegiak ematen duen jardunaren ebaluazioa oso urrun dagoela, esaterako, Hazkunde eta Garapenerako Spence Batzordeak aurkezten duenetik. Ikuspegi horrek agertzen duenez, osasun- eta hezkuntza-alorrean egindako aurrerapenak giza garapena bultzatzen dute; hain zuzen, zazpi herrialde iritsi ziren lehenengo 10 postuetara eremu horietan izandako lorpenei esker, eta kasu askotan, gainera, hazkunde-testuinguru arrunt batean.

Baina herrialde guztiek ez dute bizkortasun berarekin aurreratu, eta, horri dagokionez, aldagarritasuna nahiko nabarmena da. Azken 40 urteetan, garapen-bidean dauden herrialdeen laurden baten GDI %20 baino gutxiago hazi da, eta, beste laurden batean, %65 baino gehiago. Zenbaitetan, herrialdeen abiapuntua desberdina izateak eragin ditu alde horiek. Oro har, gutxiengatik dauden herrialdeek aurrerapen bizkorragoa izaten dute osasun- eta hezkuntza-alorrean garatuen dauden herrialdeek baino. Nolanahi ere, GGIn jardunean izaten den aldagarritasunaren erdia ez da azaltzen hasierako GGIn bidez, eta, beraz, antzeko abiapuntuak dituzten zenbait herrialdek bilakaera desberdina izaten dute. Hori guztia dela-eta, beste faktore batzuek ere garrantzi handia dute bilakaeran, esaterako: indarrean dauden politikak, nazioko erakundeak eta geografia (2. irudia).

Osasun-alorrean egiten diren aurrerapenak ere garrantzitsuak dira, baina horien erritmoa moteldu egiten da. Balio erantsien dezelerazio hori 19 herrialdek izandako atzerapen larrien ondorio da, funtsean. Horietatik bederatzik herrialdeetan —sei Saharaz hegoaldeko Afrikan eta hiru Sobietar Batasun ohian—, egungo bizi-itzaropena txikiagoa da 1970ekoak baino. Jaitsiera horren arrazoiak honako hauek dira: GIBaren nahiz Hiesaren epidemia eta, trantsizioan dauden herrialdeetan, helduen heriotza-tasari dagokionez izan den gorakada.

Hezkuntzari dagokionez, aurrerapena handia eta orokorra izan da; aurrerapen hori, gainera, ez da izan heziketa-mailan izandako aurrerapenaren

fruitu soilik, baita neska-mutikoez hezkuntzan sartzeko izan duten bidezko aukeraren ondorio ere. Neurri batean, lorpenek erakusten dute estatuek parte-hartze handiagoa izan dutela; izan ere, oro har, haurrak eskolara joateaz arduratzen dira, kalitatezko heziketa emateaz baino.

Sarrerak aintzat hartuta, berriz, jardura askotarikoagoa da. Osasuneko eta hezkuntzako adierazleek ez bezala, eta adierazle erantsietan hautemandako aurrerapenaz gain, sarrerak ez dute bateratasunerako joera. Hori, hain zuzen, azken 40 urteetan herrialde aberatsak herrialde pobreak baino azkarrago haztearen ondorio da; hori dela-eta, herrialde garatuak eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko zuloak hor jarraitzen du. Herrialde-multzo txiki bat munduko sarreren banaketaren tontorrean dago, eta pobreak ziren herrialde gutxi batzuek soilik lortu dute herrialde aberatsen taldean sartzea.

Laburbilduz, aurrerapenak nabarmenak izan dira; baina, azken bi hamarkadetakoa aldaketa guztiak ez dira guztiz positiboak izan. Zenbait herrialdek atzera egin du, osasun-arloan, bereziki, eta urte gutxian galdu dituzte hainbat hamarkadako ahaleginez lortutako arrakastak. Bestalde, hazkunde ekonomiko oso desorekatua da, bai azkar hazten diren herrialdeetan, bai horren onuradun diren gizarte-taldeetan. Era berean, giza garapenean dagoen zuloak ikaragarria izaten jarraitzen du, apur bat gutxitu den arren.

1

Giza garapenaren aurrerapen azkarrena hainbat modutan iritsi da: GGIn aurreratu duten herrialdeak, sarrerekin lotu gabeko GGI eta BPG. 1970-2010

Sailkap.	Hobekuntzak honako hauetan		
	GGI	Sarrerekin lotu gabeko GGI	Sarrerak
1	Oman	Oman	Txina
2	Txina	Nepal	Botswana
3	Nepal	Saudi Arabia	Hego Korea
4	Indonesia	Libia	Hong Kong, Txina
5	Saudi Arabia	Aljeria	Malaysia
6	Laosko Herri Errepublikak Demokratikoa	Tunisia	Indonesia
7	Tunisia	Iran	Malta
8	Hego Korea	Etiopia	Vietnam
9	Aljeria	Hego Korea	Maurizio
10	Maroko	Indonesia	India

Oharra: GGIn eta sarrerekin lotu gabeko GGIn izandako aurrerapena doiketa-lerroarekiko duten desbiderapenaren arabera neurtzen da; hau da, herrialde baten jarduna beste batzuenarekin alderatuz, abiapuntu bera hartuta (ikus Txosten osoa). Sarreren hobekuntzak, berriz, pertsona bakoitzeko BPGren ehuneko hazkundearen urteko tasaren arabera neurtzen dira.


Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoaren kalkulak, beren datu-basea oinarri hartuta.

Giza garapenaren joerak eta bultzatzaileak ulertzea


Munduak aurrera egiten du, herrialdeen arteko aldagarritasun handiko testuinguruan. Horrek iradokitzen duenez, munduko indarrei esker herrialdeek aurrera egin ahal izan dute garapen-maila guztietan, baina horiek ez dituzte berdin baliatu izan dituzten aukerak.

2

Bide-aniztasuna: GGIn bilakaera, 1970ean antzekoak ziren abiapuntuak hartuta



Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoaren kalkulak, beren datu-basea oinarri hartuta.



Oharra: doitz-lerroaren desbiderapenaren azterketan oinarritua (ikus Txosten osoa); sarrerak pertsona bakoitzeko BPGren arabera adierazi dira. Lerro lodienak adierazten du erlazioa esanguratsua dela estatistikaren ikuspegitik.

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoaren kalkuluak, bere datu-basean oinarrituta.

Giza garapenari buruzko ikerkuntzan gutxien espero zen emaitzetako bat da ez dagoela korrelazio handirik hazkunde ekonomikoaren eta osasun- nahiz hezkuntza-alorreko aurrerapenen artean; *Txosten* honetan ideia hori berretsi da (3. irudia). Gure ikerketek adierazten dutenez, lotura hori bereziki ahula da GGI ertaineko eta apaleko mailetan; hori, zehazki, osasun- eta hezkuntza-alorreko baldintzak hobetzeko pertsonen duten moduan izaten diren aldaketen arabera azal daiteke. Denboran izaten diren aldaketen artean ez dago korrelaziorik; aldiz, mailen aldaketen artean korrelazio bat hauteman da. Azken horrek eredu historikoak ditu; hau da, aberatsak izatea lortu duten herrialdeek baliabide handiak inbertitu zituzten osasun- eta hezkuntza-alorrean. Gaur egun, teknologiari eta gizarte-egituretako aldaketek esker, askoz ere behartsuagoak diren herrialdeek onura handiak lor ditzakete.

Egun, ideiak trukutzen dituzte hainbat herrialderen artean, eta horrek eragin eraldatzailea izan du; parekorik gabeko joera horri esker, osasuntsu irauteko teknologiak, eredu politikoak nahiz produkzio-jarduerak partekatu dituzte, besteak beste. Berrikuntza horietako askok hobekuntzak eragin dituzte osasun- eta hezkuntza-alorrean, eta kostu ekonomiko nahiko txikiarekin, gainera. Beraz, horrek arrazoituko luke sarreraren dimentsioen eta sarrerekin loturarik ez duten dimentsioen arteko lotura ahuldu izana, denborak aurrera egin duen heinean.

Noski, sarrerak eta hazkunde ezinbestekoak dira, eta kontrakoa pentsatzea gizakien askatasunaren hedapenean duten funtzioa aintzat ez hartzea da. Sarrerak ezinbestekoak dira pertsonen behar dituzten baliabideak kontrola ditzaten; hala, elikagaiak, lo egiteko lekua eta babesa lortu ahal izango dituzte, eta, aldi berean, alternatiba-aukera zabalagoa izango dute, jarduera garrantzitsuetan eta gustukoetan lan egiteko edo familiakoekin denbora gehiago pasatzeko. Sarrerak handitzeak zenbaitetan adierazten du ugaritzen ari direla itxurazko enplegu bat lortzeko aukerak; aldiz, aurkako kasuan, ekonomia-aren uzkurtzea eta horren ondorioz gertatzen den enplegu-murritzeta berri txarrak izaten dira beti munduko behartsuenentzat. Sarrerak, gainera, gobernuak zerbitzu publikoak emateko eta birbanaketa-programak gauzatzeko premia izaten dituzten zergen eta bestelako ordainen eragile dira. Beraz, sarreraren gorakada orokorrak lehenetsun izaten jarraitzen du politika publikoak egitean.

Txosten honetan aurkeztutako emaitzetan ez da ukatu sarrerak handitzeak duen garrantzia pertsonen gizarte-zerbitzuak eskura ditzaten. Are gehiago, mikroekonomian hainbat eta hainbat froga daude lotura hori babesten dutenak. Egoera ekonomikoaren eta osasunaren artean hautematen den korrelazio sendo horrek adierazten du pertsona aberatsen abantaila apur bat dutela gizarte-zerbitzuak eskuratzean. Nolanahi ere, *Txosteneko* azterketak oinarri hartuta, ezin da baieztatu

hazkunde ekonomiko orokorra nahikoa denik osasun- eta hezkuntza-alarreko mailak hobetzeko GGI ertaina edo apala duten herrialdeetan. Ondorio hori positiboa da, orain arte hazkunde jarraitua helburu zaila izan baita.

Bestalde, gure emaitzek *Txostenean* hasiera-hasieratik defendatu diren bi premisa baieztatu dituzte, datu eta azterketa berriak oinarri hartuta: bata, giza garapena eta hazkunde ekonomikoa desberdinak direla, eta, bestea, hazkunde motelako egoeretan ere aurrerapen handiak lor daitezkeela. Lehenengo *Giza Garapenari buruzko Txostenetan*, Kerala Indiako estatua jartzen zen adibidetzat, bai eta antzeko sarrerak izan arren giza garapenari dagokionez beste herrialde batzuk baino gehiago aurreratu zuten zenbait herrialde ere, esaterako: Costa Rica, Kuba eta Sri Lanka. Izan ere, herrialde horietan, hazkundera bereiztu zuten sarrerekin loturarik ez duten giza garapeneko dimentsioen aurrerapenak zehazten dituzten prozesuetatik hazkundera bereiztea.

Erakundeen garrantzia

Aurrerapena sustatzen duten politikak eta erreformak nabarmen aldatzen dira erakundeen testuinguru desberdinetan, eta horien arrakasta, neurri batean, egiturako eta politikako mugen mende dago. Hori dela-eta, askotan, erakunde baten konponbideak beste erakunde batean erabiltzean edo herrialde bateko politikak beste herrialde batean baliatzean saiakerak porrot egiten du. Era berean, xede duten helburua lortzeko, politikak indarrean den testuinguru instituzionalean oinarritu behar dira. Adibidez, Indiako liberalizazio ekonomikoaren xedea zen oso mugatuta eta familiako negozioek menderatuta zegoen esparrua hobetzea, kontrolak murriztuz eta lehia handiagoa ezarritik. Laburbilduz, erakundeak giza garapenerako funtsezko izan arren, beharrezkoa da horiek dagokien testuinguruan nola jokatzeko duten xehetasunez aztertzea.

Halaber, garrantzitsua da estatuaren eta merkatuaren arteko harremanak nola antolatzen diren jakitea. Gobernuak modu askotan aztertu dituzte merkatuak sarrerak eta dinamismoa sortzeko duen premiaren eta horrek bere akatsei heltzeko premiaren arteko tirabirak. Merkatuak beharrezkoak dira dinamismo ekonomikoari eusteko; hala ere, ez ditu zuzenean hobekuntzak eragiten giza garapenaren beste dimentsioetan. Ekonomia gehiegizko abiaduran

haztea sustatzen duen garapena, normalean, ez da iraunkorra izaten. Beste hitz batzuetan, merkatu-ekonomia beharrezkoa da, baina ez nahikoa.

Karl Polanyik aurkeztu zuen bikaina egin zuen orain dela 60 urte baino gehiago merkatuaren autoerregulazioaren mitoari edota, hutsune politiko nahiz instituzionala izan arren, merkatuak berean jarrai dezakeen ideari buruz; oharpen horiek, hain zuzen, ideia hura zabaltzen dute. Oro har, merkatuek huts egiten dute ondasun publikoak emateari dagokionez (segurtasuna, egonkortasuna, osasuna eta hezkuntza). Adibidez, lan-esku merkearen enplegu-jardueraren intentsiboaren kontura ondasunak ekoizten dituzten enpresek edo herrialde bateko baliabide naturalak ustiatzen dituztenek ez dute, ezinbestean, langileen kalifikazioa hobetzeko interesik izango eta, era berean, ez die asko arduratuko langile horien osasunak, baldin eta lanean has daitezkeen pertsonen multzo handia badute. Estatuaren eta gizartearen ekintza osagarririk gabe, merkatuek ez dute behar beste indar ingurumenaren iraunkortasuna zaintzeko. Horren ondorioz, ekosistemak narritzeko baldintza ezin hobeak sortzen dira, bai eta hondamendiak gertatzeko ere (esaterako, Javako lur-irristatzak edo Mexikoko golkoko petrolio-isuria).

Nolanahi ere, erregulazioak gai den estatu bat eta bertako agintarien konpromiso politikoa eskatzen du; baldintza horiek aurkitzea, baina, zaila izaten da. Garapen-bidean dauden herrialdeetako zenbait gobernu estatu garatuak hartutako zenbait neurri erantzuten ahalegindu dira, horretarako baliabiderik edo gaitasunik izan gabe. Esaterako, Latinoamerikako herrialde askotan inportazioak ordezkatzeko politika ezarri zen; horrek apenas iraun zuen, ordea, herrialdeak industria-politika fokalizatua gauzatzen hasi zirenean. Alderantziz, Ekialdeko Asian, arrakastaz frogatu ahal izan zuten gai den eta sendo dagoen estatu batek merkatuen garapena eta hazkundera bultzatzen lagun dezakeela. Kasu guztietan, zuzena eta egokia dirudien ekimen oro tokian tokiko testuinguruaren mende dago. Estatuak gain, gizarte zibilak ere erakutsi du gai dela merkatuaren eta estatuaren beraren gehiegikeriei mugak ezartzeko, hala ere disidentzia kontrolatu nahi duten gobernuak haien jardura debeka dezakete.

Dinamikak bertutetsuak dira herrialdeek erakunde politikoak eta merkatu inklusiboak izatea lortzen dutenean; baina, hori lortzea zaila da, eta ez oso ohikoa. Kapitalismo oligarkikoak porrot egingo du, bi arrazoi direla-eta. Batetik, berrikuntzaren birrikak itotzen dituelako; adibidez, Latinoamerikako eta Karibeko inportazioak ordezkatzeko

Gure emaitzek *Txostenak* hasiera-hasieratik defendatu dituen bi premisa nagusi berretsi dituzte: giza garapena ez dela hazkunde ekonomikoaren berdina eta aurrerapen nabarmenak egin daitezkeela hazkunde motelako egoeretan ere.

gertatu bezala. Eta bestetik, aurrerapen materialak pertsonen nahiak gehitzen dituelako, eta horrek boterean dagoen eliteak bertan jarraitzearen aurka egiten duelako; hala gertatu da, Brasilen, Indonesian eta Hego Korean, 1990eko hamarkadatik.

Gauza onak ez datoz beti batera

Giza garapena ez da osasuna, hezkuntza eta sarrerak soilik; pertsonen parte-hartze aktiboa ere beharrezkoa da aurrerapen-, zuzentasun- eta iraunkortasun-prozesuetan, jendeak bere bizitza nahi bezala bideratzeko duen askatasunaren parte oso baitira. Maila horretan, adostasun gutxiago dago aurrerapenak dimentsio horietan duen eraginari dagokinez, eta, gainera, ez da horren neurketa handirik egin. Nolanahi ere, neurketa kuantifikagarriak ez izateak ez du adierazten azterketa-aldagai bat baztertu behar denik edo aintzat hartu behar ez dugunik.

Herrialdeetako GGik aurrera egiten duenean ere, herrialde horiek ez dira ezinbestean nabarmentzen dimentsio abstraktuagoetan dituzten aurrerapenak direla-eta. Hau da, iraunkorra, demokratikoa eta berdintasunezkoa ez den herrialde batek GGI handigoa izan dezake, eta, era berean, GGI apala duen herrialde bat iraunkorra, demokratikoa eta berdintasunezkoa izan daiteke. Egoera horrek, beraz, zalantzan jartzen

ditu garapenari buruz dugun iritzia, horren neurketa eta denboran aurrera egin ahala emaitzak eta prozesuak hobetzeko ezartzen diren politikak.


Oraingoz, ez da aurkitu GGI giza garapenaren beste dimentsio batzuekin lotzen duen eredu argirik, esaterako: ahalduntzearekin eta iraunkortasunarekin (4. irudia). Aldiz, korrelazio negatiboa egiaztu da GGiren balioaren eta desberdintasunaren artean; baina, aldagarritasuna handia da. Korrelazio falta nabarmena da GGiren balio handia baina beste aldagai batzuen jardura eskasa duten hainbat herrialderen artean: herrialdeen %25ek GGI handia du, baina iraunkortasun-maila apala. Eredu hori errepikatu egiten da askatasun politikoetan, baina ez hain modu nabarian.

Biztanleriaren ahalduntze handiagoa eragiten duten garapen-joeren baitan, alfabetizazioko eta irakaskuntza-mailako aurrerapenak sartzen dira herrialde askotan. Bi alderdi horiek pertsonen erabaki informatuak hartzeko eta beren gobernuen erantzukizuna eskatzeko duten gaitasuna indartu dute. Ahalduntzearen eta horren adierazpenaren garrantzia handitu egin da teknologiari eta erakundeei esker. Bereziki, telefonia mugikorraren eta satelite-telebistaren erabilera ugartzeari nahiz Internetarako sarrerak gehitzei esker, informazioaren erabilgarritasuna eta iritzia azaltzeko gaitasuna areagotu dira.

Demokrazia formalen ehunekoa hazi egin da; hala, 1970ean herrialdeen heren bat izatetik

4

GGIren eta giza garapenaren dimentsio zabalagoen arteko korrelazioa: ahalduntzea, desberdintasuna eta iraunkortasuna. 2010



Oharra: datuak 2010ekoak edo eskura dauden azken urtekoak dira. Lerroek banaketaren batez bestekoa adierazten dute. Ehunekoak koadrante bakoitzean dauden herrialde guztien proportzioaren baliokide dira. Ikus Txosten osoa askatasun politikorako, ingurumen-iraunkortasunerako eta desberdintasunerako neurriei buruzko xehetasunak jakiteko.

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoaren kalkulak, 2010 *Mundu Garapenaren Indizeen* (Washington D.C.) datuetan oinarrituta; Munduko Bankua eta M. Marshall eta K. Jagers, 2010, "Polity IV Project, Political Regime Characteristics and Transitions, 1800–2008," Sare Integratuaren Programa, Gizarte Gatazkaren Ikerkuntzarako, College Park, Md: Nazioarteko Garapenerako eta Gatazkaren Kudeaketarako Zentroa (CIDCM), Marylandeko Unibertsitatea.

1990eko erdialdean erdia izatera pasa zen, eta 2008an hiru bosten izatera. Horrez gain, erakunde politikoen forma hibrido ugari sortu dira. Politika-funtzionamendu osasuntsu baterako aldaketa erreala askotarikoa den arren eta nahiz eta demokrazia formal asko ahulak eta akastunak diren, egun, oro har, herritarren ikuspegiak eta iritziak aintzat hartzen dira politikak egitean. Tokiko prozesu demokratikoak finkatzen ari dira, eta, ostera, herrialde askotan, borroka politikoek aldaketa nabarmenak ekarri dituzte; esaterako, baztertutako honako talde hauen ordezkartza handitu da: emakumeak, pobreak, indigenak, errefuxiatuak eta gutxiengo sexualak.

Baina batez bestekoek ondorio okerrak eragin ditzakete. Sarrerren banaketan dauden aldeei dagokienez, 1980tik, aldeak handitu dituzten herrialdeak askoz ere gehiago izan dira gutxitu dituztenak baino. Azken 30 urteetan, desberdintasuna gutxitu den herrialde bakoitzeko, bi herrialdetan baino gehiagotan handitu da aldea; fenomeno hori are eta nabarmenagoa da Sobietar Batasun ohiko herrialdeetan. Asia Ekialdeko eta Pazifikoko herrialde gehienetan, halaber, sarrerren banaketaren desberdintasun-egoera okerragoa da egun orain dela bi hamarkada baino. Latinoamerika eta Karibe, aldiz, salbuespen garrantzitsuak dira: sarrerei eta


ondasunei dagokienez denbora luzean munduko zulorik handiena izan zuen eskualdeak aurrerapen handiak lortu ditu, gastu publiko handiagoari eta gizartean ardaztutako politikei esker.

Azken urteetan, zenbait lorpenen ahulezia ere egiaztatu ahal izan dugu. Gertaera hori nabarmenagoa egin da hainbat hamarkadatan munduan izan den finantza-krisi handienaren ondoren; zehazki, 34 milioi lanpostu galtzea eragin zuen, eta, horrez gain, beste 64 milioi pertsona pobrezia-mugaren egoerara eraman zituen (US \$1.25, eguneko). Egun, oraindik, atzeraldian sartzeko arriskua dago, hazkunde-aldi labur baten ondoren, eta urte asko igaro daitezke erabat suspertzea lortu aurretik.

Baina, agian, giza garapeneko aurrerapenei eusteko erronkarik handiena produkzio- eta kontsumo-ereduen iraunkortasun ezan oinarritzen da. Aurrerapen horiek guztiz iraunkorrak izan daitezke, hazkunde ekonomikoaren eta berotegi-efektuko gasen isurien arteko lotura estua hautsi behar da. Zenbait herrialde garatu beren efektu kaltegarrienak arintzen hasi dira, birziklatzearen bitartez eta garraio publikoan nahiz azpiegiturretan inbertituz. Baina garapen-bidean dauden herrialde gehienentzat, energia garbien kostu handia eta baliabide-urritasuna nekez gaindi daitezkeen oztupoak dira.

**Estatuaren eta
gizartearen ekintza
osagarriarik gabe,
merkatuek ez dute behar
beste indar
ingurumenaren
iraunkortasuna
zaintzeko.**

IRUDIA 5 Desberdintasunaren ondorioz giza garapenean izandako galera, eskualdeen arabera



Oharra: zutabe barruko zifrek GGlen osagai bakoitzari dagokion desberdintasunak eragindako galera guztien ehunekoa adierazten dute.

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoaren kalkuluak, bere datu-basean oinarrituta

Etengabe aldatzen ari den errealitate baterako adierazleak

Giza garapenaren ikuspegiak urrats bat aurrerago joan nahi izan du beti egiten dituen neurketetan, eta ez fenomeno bat neurtze hutsagatik; hau da, garapena sarrera-maila baino askoz ere gehiago den ideari buruzko pentsamendu berritzailea elikatu nahi izan du. Denborak aurrera egin ahala, *Giza Garapenari buruzko Txostenak* beste adierazle batzuk aurkeztu ditu, pobrezia gutxitzeari eta emakumea ahalduzteari dagokionez egindako aurrerapenak behatzeko aukera ematen dutenak. Nolanahi ere, lan horren oztoporik handiena datu fidagarriak ez izatea izan da.

Aurtengoan, hiru adierazle berri gehitu ditugu, ongizate-banaketa alderdi garrantzitsuen adieraziko dituztenak, desberdintasunean, genero-ekitatean eta pobrezian. Horiei esker, halaber, estatistika-metodo aurreratuagoak izango dira, bai eta erabili ahal izango diren datu gehiago ere. GGI ere berrikusi egin da. Hau da, kritika onargarriak jaso zituzten zenbait alderdi zuzendu egin dira, baina jatorrizko hiru dimentsioei eutsi zaie; horrez gain, adierazle egokiagoak erabili dira etorkizuneko aurrerapenak ebaluatzeko.

Desberdintasunak doituak Giza Garapenaren Indizea. Hasiera-hasieratik, *Txostenaren* xedea izan da GGIren osagai bakoitzak inguruan duen desberdintasun-maila islatzea. Aurten, lehenengo aldiz, Desberdintasunak doituak GGI (GGI-D) aurkeztu da; hau da, gizarte bateko pertsonen giza garapena islatzen duen adierazlea, horien desberdintasun-maila kontuan hartuta. Berdintasun perfektua duen gizarte batean, GGI eta GGI-D indizeek balio bera dute. Osasunaren, hezkuntzaren eta sarreraren banaketan desberdintasuna dagoenean, edozein gizartetako pertsona baten batez besteko GGI indizea GGI orokorra baino txikiagoa izango da; bestalde, GGI-D indizearen balioa zenbat eta txikiagoa izan (eta handiagoa GGIrekiko aldea), desberdintasun handiagoa izango da. Neurketa hori 139 herrialdetan aplikatu dugu, eta, besteak beste, honako ondorio hauek ateratu ditugu:

- Desberdintasunak %24ko galera eragiten du, batez beste, GGIren balioan. Hau da, desberdintasuna kontuan hartuz gero, 2010eko GGI orokorra 0,62tik 0,49ra jaitsiko litzateke; beraz, GGI handitik GGI ertainera pasako litzateke. GGIren balioan izandako galerak %6 (Txekiar Errepublika) eta %45 (Mozambike) artean daude. Oro har, herrialdeen lau bostenak %10

baino gehiago galtzen du, eta ia bi bostenak %25 baino gehiago.

- Giza garapenaren balio txikiak duten herrialdeek desberdintasun handiagoa izan ohi dute, eta hori beste dimentsio batzuetan ere hautematen da; beraz, GGIren balioan duen galera nabarmenagoa da. Esaterako, desberdintasun multidimentsional horren ondorioz, Namibian GGIren balioaren %44 galtzen dute pertsonak, Afrika Erdiko Errepublikan %42, eta Haitin %41.
- Saharaz hegoaldeko Afrikan bizi direnak izaten dute galerarik handiena, hiru dimentsioetan dauden desberdintasun handiak direla-eta. Beste eskualde batzuetan, galera dimentsio bakar bateko desberdintasunaren ondorio izan daiteke, zuzenean; hala gertatzen da, esaterako, Asia Hegoaldean osasuna dimentsioarekin (5. irudia).

Genero-desberdintasunaren beste neurketa bat. Emakumeek eta neska txikiak aurre egin beharreko desabantailak desberdintasun-iturri handia dira. Askotan, diskriminatu egiten dituzte osasun-alorrean, hezkuntzan eta lan-merkatuan, eta, noski, horrek ondorio negatiboak ditu beren askatasunak baliatzean. *Txosten* honetan, desberdintasun horiek neurtzeko beste metodo bat sartu dugu, GGI-D indizearen logika berari jarraiki; hala, emakumeek eta gizonek izaten dituzten lorpenen banaketan dauden desberdintasunak agerian utzi nahi dira. Genero Desberdintasunaren Indizeak honako hau erakusten du:

- Genero-desberdintasuna asko aldatzen da: lorpenen eragiten dituen galerak %17 eta %85 artekoak dira. Adierazle hori ezin da zuzenean alderatu galera orokorrekin desberdintasuna dela-eta, aldagai desberdinak erabiltzen baitituzte. Generoari dagokionez berdintasuna duten herrialdeen zerrendaren buruan Herbehereak dago, eta, atzetik, Danimarka, Suedia eta Suitza.
- Giza garapenaren banaketa desberdina den herrialdeetan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna ere handia da, eta alderantziz. Bi fronteetan adierazle apalenak dituzten herrialdeak Afrika Erdiko Errepublika, Haiti eta Mozambike dira.

Pobrezia multidimentsionalaren adierazlea. Garapena bezala, pobrezia multidimentsionala da; dena den, hori ez da kontuan hartzen zifra globaletan.

Aurtengo *Txostenean*, Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea aurkeztu da, diru-neurrietan oinarritutako indizeen osagarri; horrez gain, pobrezian bizi direnek izaten dituzten gabeziak hartzen ditu aintzat, bai eta gabezia horiek gertatzen diren esparrua ere. Indizeak gabezia batzuk identifikatzen ditu GGIren hiru dimentsio berdinetan, eta pobrezian bizi diren pertsonen kopurua adierazten du (gabeziak dituztenak), bai eta familia pobre batek normalean izaten dituen gabezien kopurua ere. Indizea hainbat modutan multzoka daiteke: eskualdeen arabera, talde etnikoaren arabera, pobrezia-dimentsioaren arabera eta beste kategoria batzuen arabera; beraz, tresna oso erabilgarria da politikak egiteaz arduratzen direnentzat. Hurrengo lerroetan, zenbait aurkikuntza laburbildu dira:

- Indizeak aintzat hartzen dituen 104 herrialde-etak 1.750 bat milioi pertsona (bertako biztanleriaren heren bat), pobrezia multidimentsionalan bizi da. Hau da, adierazleen heren batek, gutxienez, gabezia larriak islatzen ditu osasunean, hezkuntzan edo bizi-mailan. Kopuru horrek gainditu egiten du herrialde horietan egunean US\$1.25 baino gutxiagorekin bizi diren 1.440 milioi pertsonen kopurua; baina, gutxiago dira US\$2 baino gutxiagorekin bizi direnak. Gabezien ereduak ere oso desberdinak dira sarrerei lotutako probreziarekin alderatuz.
- Saharaz hegoaldeko Afrikan hauteman da pobrezia multidimentsionalaren eragin handiena; zehazki, Hegoafrikako %3 apurraren eta Nigerko %93 larriaren artean dabil. Gabezien batez bestekoa, berriz, %45 (Gabon, Lesotho eta Swazilandia) eta %69 (Niger) artean dago. Nolanahi ere, adierazle horren arabera, biztanleria pobrearen erdia Hegoaldeko Asian bizi da (%51 edo 544 milioi pertsona) eta laurden bat baino gehiago Afrikan (%28 edo 458 milioi pertsona).

* * *

Adierazle berri horiek emaitza eta ondorio gehigarriak nahiz berritzaileak ematen dituzte, eta horiek erreferentziatzat balio dezakete garapen-politikak eztabaidatzeko eta egiteko. Desberdintasunaren ondorioz giza garapenean izandako galera handiek adierazten dutenez, gizarteak onura handiak izango ditu funtsean ekitatea sustatzeko erreformak ezartzen baditu. Era berean, Pobrezia Multidimentsionalaren Indize altua eta sarrereren

araberako pobrezia-maila apalak bat egitean, aurre-rapen handiak lor daitezke, oinarritzko zerbitzu publikoen prestazioa hobetuta soilik. Adierazleek atea zabalik utzi dute beste ikerkuntza batzuk egiteko, arazo larrienei heltzeko aukera emango dutenak. Esaterako, zer herrialdek lortu dute giza garapenaren banaketan dauden desberdintasunak arrakastaz gutxitzea? Genero-ekitatearen aurrerapenak zer dira, garapen-joera orokorragoen kausa edo ondorio? Pobrezia multidimentsionala gutxitu al daiteke sarrereren araberako pobrezia gutxituz? Edo alderantziz?

Etorkizuneko giza garapenaren norabidea zehaztea

Zer ondorio ditu honek nazioko nahiz nazioarteko politika publikoen planak egiteko? Esperientzia pozgarria da; baina, tentuz ibili behar da. Aurrera egin daiteke, baita baliabide gutxiarekin ere; hau da, pertsonen bizimodua hobetu daiteke, egun herrialde gehienek dituzten baliabideekin. Hala ere, horrek ez du arrakasta bermatzen, herrialdeek giza garapena lortzeko egin beharreko bidea askotarikoa baita; gainera, lotura estua du herrialde bakoitzeko baldintza historikoekin, politikoeekin eta instituzionalekin.

Garapenari buruzko diskurtsoak politika publikoen formula berdinak aplikatzea eragin du tradizioz, herrialde gehienetan erabili ahal izan direnak. Egun, garapen-komunitateak modu zabalean onartzen ditu ikuspegi horren muga nabarmenak. Horiek agerian uzten dute herrialdeen eta komunitateen banakotasuna ezagutzeko premia, testuinguru desberdinetan estrategiak eta politikak zehazteko oinarritzko printzipioari jarraiki. Txosten global batek (esaterako, honako honek) ondorio orokorrak ateratzeko, eta, aldi berean, politiken eta ikerketen plan bat bultzatzea, bai eta eztabaida bat ere, eremu osagarrietan.

Formula orokorrak ez-perfektuak badira, nola lagun dezakegu politikak egiten? Mundu guztian egunero diseinatzen eta ezartzen dituzte politika publikoak, eta garapen-erakundeek nahiz ikerlariak eman behar dute horretarako behar den laguntza. Horrenbestez, hona hemen oinarritzko ideia batzuk:

- *Lehenik eta behin printzipioetan pentsatu.* Ez da egokiena politika bat bereziki giza garapenerako ona den edo ez galdetzea, politika askok testuinguru batzuetan funtziona baitzekete

Adierazle berri horiek emaitza eta ondorio gehigarriak nahiz berritzaileak ematen dituzte, eta horiek erreferentziatzat balio dezakete garapen-politikak eztabaidatzeko eta egiteko

eta beste batzuetan, aldiz, ez. Horri dagokionez, hobe da galdetzea zer printzipio-mota erabil ditzakegun politika-aukera desberdinak ebaluatzeko. Adibide batzuetan, ekitatea eta pobrezia jartzen dituzte lehenengo lekuan, edota erakundeak diseinatzea proposatzen dute gatazkak konpontzeko eta eztabaidak gidatzeko. Beraz, testuinguruak adieraziko digu horiek nola bihurtu politika espezifiko; horretarako, arrreta berezia jarriko da aurreko esperientzietan eta erakundeek, egiturek nahiz politikek dituzten mugetan.

- *Testuingurua serio hartzea.* Estatuaren gaitasuna eta muga politikoak testuingurua nola eta zergatik ez den bazter utzi behar adierazten duten bi adibide argi dira. Askotan, politika batek porrot egiten du, hasieratik ontzat ematen baita estatu bat nahiz ongi funtzionatzen duen eta erraz sortu edo alda daitekeen sistema erregulazailerik bat dagoela. Era berean, ekonomia politiko orokorra aintzat hartzen ez duten nazioko neurriek ere huts egiteko arriskua dute. Erakunde-errealitatea ulertzea xede ez duten diseinuen aplikagarritasun guztia galtzen dute.
- *Politika orokorrak aldatzea.* Herrialde asko, bakoitzak bere aldetik, ez dute behar besteko gaitasuna nazioartean sortzen diren erronka handiei aurre egiteko (esaterako: migrazioa, merkataritza eta inbertsio eraginkorrak nahiz ekitatiboak), ez eta mundu-mailako mehatxuei ere (adibidez, klima-aldaketa). Arazo horiei aurre egiteko, gobernatzeko beste sistema bat ezartzea aholkatu da, erantzukizun demokratikoa, gardentasuna eta gutxiago garatuta dauden herrialdeak —helburutzat munduko testuinguru ekonomiko egonkor eta iraunkor bat aurkitzea dutenak— bertan sartzea sustatuko dituen.

Giza Garapenari buruzko Txostenaren inpaktuek agerian utzi dute politikak egitean giza garapenaren dimentsio nagusien azterketa sakona barne hartu eta sustatu behar dela. Ikuspegi horren osagai garrantzitsu bat ikerkuntza- eta azterketa-programa sendoa da. *Txosten* honetan, programa horren ezarpena nola bultzatu azaldu da, datuak eskuratzeko aukera gehiago izanda eta joeren azterketa eginda. Oraindik asko dago egiteko, baina hiru

lehentasun ezarri ditugu: politika publikoei buruz eztabaidatzeko oinarri izan daitezkeen datuen eta azterketen kalitatea hobetzea; garapen-azterketaren ikuspegi alternatibo bat aurkeztea; eta desberdintasunari, ahuleziari eta iraunkortasunari buruz dugun ulermena handitzea.

Hazkundearen alderdi ekonomikoak eta, bereziki, garapenarekin duten lotura direla-eta, gaia errotik birformulatu behar da. Oinarri teoriko eta enpiriko zabal batek hazkunde ekonomikoaren eta garapenaren arteko lotura babesten du oraindik, eta bultzatzen dituzten ereduak honako premisa hauetan oinarritzen dira: pertsonak kontsumitzeaz soilik arduratzen direla, eta metodo enpirikoak erabiltzen dituztela, politikek eta erakundeek hazkunde ekonomikoan duten eragina aztertzea xede dutenak, ia esklusiboki.

Aldiz, giza garapenaren ikuspegiaren oinarritzko printzipioa da norberaren ongizatea dirua edukitzea baino askoz gehiago dela; hau da, pertsonak nahi duten bizimodua bizitzeko besteko aukera izatea adierazten du. Beraz, beste ekonomia-eredu bat bultzatzeko eskatzen dugu, pertsonen ongizatea eta hazkundera bultzatuko dituen, eta, epe laburrean nahiz luzean giza garapena sustatzen duten heinean, gainerako politikak horren baitan ebaluatzeko eta aplikatzeko aukera emango duena.

Martin Luther King Jr.-ek honako hau adierazi zuen: “Gizakiaren aurrerapena ez da halaberharrez gertatzen. Ahalegin nekaezinaren eta etengabeko lanaren ondorio da. [...] Lana gogor egiten ez bada, denbora gizarte-geldialdiaren indarren aliatu bihurtzen da”. Giza garapenaren nozioa ahalegin horien eredu da, ikerlari eta profesional konprometituen multzo batek asmatua baita, gizartearen aurrerapenari buruz dugun iritzia aldatu nahi duten profesionalak sortua, hain zuzen.

Dena den, erabateko giza garapena lortzeko, beste urrats bat eman behar dugu. Pertsonak garapenaren oinarri hartzea, ariketa intelektual huts bat baino gehiago da; aurrerapena zuzena eta oinarri zabalekoa izan dadin lortzea adierazten du, jendeak aldaketan aktiboki parte har dezan, eta,aldi berean, lortutako aurrerapenak etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jar ez dezaten bermatzea. Erronka horiek gaindi daitezke; are gehiago, gainditu egin behar dira. Gaur inoiz baino premia handiagoz, gainera.

Herrialdeen kodeak

2010eko GGIren arabera sailkapena eta 2005etik 2010era bitartean sailkapenean izandako aldaketa

Afganistan	155	↑	1	Fiji	86	↓	9	Lituania	44	↓	2	Tailandia	92	↑	1
Afrika Erdiko Errepublika	159	↓	1	Filipinak	97	↓	2	Luxenburgo	24	↓	6	Tajikistan	112		
Albania	64	↓	1	Finlandia	16	↓	2	Madagaskar	135	↓	2	Tanzaniako Errepublika Batua	148	↑	1
Alemania	10	↓	1	Frantzia	14	↑	5	Malawi	153			Timor-Leste	120	↑	11
Algeria	84	↑	1	Gabon	93	↑	1	Malaysia	57	↓	2	Togo	139	↓	4
Ameriketako Estatu Batuak	4			Gambia	151	↓	1	Maldivak	107	↑	4	Tonga	85	↓	6
Andorra	30	↑	2	Georgia	74	↓	3	Mali	160	↑	2	Trinidad eta Tobago	59	↑	1
Angola	146	↑	2	Ghana	130	↓	2	Malta	33	↓	3	Tunisia	81	↑	5
Arabiar Emirerri Batuak	32	↑	5	Ginea	156	↓	1	Maroko	114	↑	1	Turkia	83	↓	1
Argentina	46	↑	4	Ginea Bissau	164	↓	1	Mauritania	136			Turkmenistan	87		
Armenia	76			Grezia	22	↑	3	Maurizio	72	↓	2	Txad	163	↓	6
Australia	2			Guatemala	116			Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia	71	↑	1	Txekiar Errepublika	28	↓	2
Austria	25	↓	1	Guyana	104	↑	1	Mexiko	56	↓	2	Txile	45	↑	2
Azerbaijan	67	↑	16	Haiti	145	↓	6	Mikronesiako Estatu Federatuak	103	↓	5	Txina	89	↑	8
Bahamak	43	↓	3	Hegoafrika	110	↓	6	Moldaviako Errepublika	99			Uganda	143	↑	4
Bahrain	39	↓	1	Herbehereak	7	↑	3	Mongolia	100	↑	2	Ukraina	69	↓	3
Bangladesh	129	↑	1	Honduras	106			Montenegro	49	↓	1	Uruguai	52		
Barbados	42	↓	1	Hong Kong, Txina (ALB)	21	↑	2	Mozambique	165			Uzbekistan	102	↓	1
Bielorrusia	61	↑	1	Hungaria	36	↓	1	Myanmar	132	↑	6	Venezuelako Bolibartar Errepublika	75	↑	3
Belgika	18	↓	1	India	119	↑	1	Namibia	105	↑	2	Vietnam	113	↑	1
Belize	78	↓	9	Indonesia	108	↑	2	Nepal	138	↑	5	Yemen	133	↑	8
Benin	134			Irango Islamiar Errepublika	70	↑	10	Niger	167	↓	1	Zambia	150	↑	1
Bolikosia	149	↓	4	Irlanda	5			Nigeria	142			Zeelanda Berria	3		
Boliviako Estatu Plurinazionala	95	↓	3	Islandia	17	↓	10	Nikaragua	115	↓	2	Zimbabwe	169		
Bosnia-Herzegovina	68	↓	4	Israel	15			Norvegia	1			Zipre	35	↑	4
Botswana	98	↑	2	Italia	23	↑	4	Pakistan	125	↓	2				
Brasil	73			Jamaika	80	↓	6	Panama	54	↑	4				
Brunei Darussalam	37	↓	4	Japonia	11	↑	1	Papua Ginea Berria	137						
Bulgaria	58	↓	1	Jordania	82	↑	2	Paraguai	96						
Burkina Faso	161			Kamerun	131	↓	2	Peru	63	↑	4				
Burundi	166	↑	1	Kanada	8			Polonia	41	↑	3				
Cabo Verde	118	↓	1	Kanbodia	124	↑	1	Portugal	40	↑	3				
Costa Rica	62	↓	1	Kazakhstan	66	↓	1	Qatar	38	↓	4				
Danimarka	19	↓	3	Kenya	128	↓	1	Ruanda	152	↑	2				
Djibuti	147	↓	1	Kirgizistan	109			Salomon Uharteak	123	↓	4				
Dominikar Errepublika	88			Kolonia	79	↑	2	Sao Tome eta Principe	127	↓	3				
Egipto	101	↑	2	Komoreak	140	↓	8	Saudi Arabia	55	↓	2				
Ekuador	77	↓	2	Kongo	126	↓	4	Senegal	144						
Ekuatore Ginea	117	↑	1	Kongoko Errepublika Demokratikoa	168			Serbia	60	↓	1				
El Salvador	90			Koreako Errepublika	12	↑	8	Sierra Leona	158	↑	1				
Erresuma Batua	26	↓	4	Kroazia	51	↓	2	Singapur	27	↑	1				
Errumania	50	↑	1	Kuwait	47	↓	2	Siriako Arabiar Errepublika	111	↓	3				
Errusiar Federakundea	65	↑	3	Laosko Herri Errepublika Demokratikoa	122	↑	4	Sri Lanka	91						
Eslovakia	31	↑	5	Lesotho	141	↓	1	Sudan	154	↓	2				
Eslovenia	29			Letonia	48	↓	2	Suedia	9	↓	3				
Espainia	20	↑	1	Liberia	162	↑	2	Suitza	13						
Estonia	34	↓	3	Libiako Arabiar Herri Jamahiriya	53	↑	3	Surinam	94	↓	5				
Etiopia	157	↑	3	Liechtenstein	6	↑	5	Swazilandia	121						

OHARRA

Datu eta metodologia tinkoak erabiliz, 2005 eta 2010 artean, herrialdearen sailkapena hobetu edo okertu egin den adierazten dute geziek, eta zurtz dauden espazioek, berriz, aldatetarik ez dela egon.